



Pertsonak

Ekhilur txartela edukitzeak onurak ekartzen dizkizu zuri, baita zure auzoari, zure hiriarri eta zure inguruari ere.

Ekhilur txartelarekin erosteagatik deskontuak jasoko dituzu (Ekhilur puntuak) hurrengo erosketetan erabiltzeko; erosketa bonoak lortu ditzakezu (20 euroko erosketa bonu bat erostean 25 Ekhilur puntuak jasoko dituzu) eta Ekhilur herri-sareetan erabakiko diren beste abantaila batzuk ere izan ditzakezu.

Ekhilur puntuak Ekhilur Sarean edo puntu horiek lortu zenituen Ekhilur herri-sarean erabili ditzakezu erosketak egiteko, baina ezingo dira euroen truke aldatu.

Horrez gain, kooperatibako bazkidea bazara eta proiektuaren gaineko gogoak eta poza elkarbanatu nahi baldin baduzu lagunekin eta familiakoekin, gonbita iezaiezu euren txartela edukitzera, modu hobeagorik ez dago! Bi pertsoneri abala eman diezaiekezu sisteman alta emateko eta abantaila guztiak izango dituzte bazkideak izan gabe. Hori bai, bazkideek baino ez dute hitza eta botoa izango batzarretan.

Txartela 5,95€ eurotan saltzen da, eta mantentze-gastuak hilero 1€ izango dira. Txartela diruz kargatzea doan da eta nahi beste aldiz egin dezakezu aplikaziotik, web orrialdetik edo zure ingurutan dauden dendetan eta elkarteetan aurkituko dituzun berriz kargatzeko puntuetan. Gutxieneko karga 20 eurokoa izango da.

Amaitzeko, Ekhilurreko lagunok gure inguruko gizarte-egitura indartzearen aldeko apustua egiten dugu. Hori dela eta, kooperatibako kontu bakoitzak, hilero, hilaren batean, aurreko hilabeteko batezbesteko saldoaren %0,5a emango dio txartelaren erabiltzaileak erabakitako Ekhilur sareko elkarte bati Ekhilur puntuetan.

Oro har, zentimoz ari gara. Ez da aparteko esfortzurik izango, baina erabiltzaile askoren kooperazioa oso lagungarri izan daiteke hainbat elkarteentzat aurrera egiteko. Hilero emandako ekarpen hori ezin dezakete

eurotan aldatu; Ekhilur sarearen barnean erabili behar izango dute, eta horri esker, diru horrek zure komunitatearen sare-ekonomiko eta gizarte-sarea sustatuko ditu.